

IV Ekonomia Ekologikoaren Ikastaroa, 2017

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Aurkezpena:

Mundua azkar aldatzen ari da, eta iraganeko errezetak ez dira gai egungo arazoak konpontzeko. Albert Einstein-en hitzetan: "ezin ditugu arazoak konpondu sortu genituenean pentsatzen genuen modu berean pentsatzen badugu". Egungo ekonomia sistema analizatzean, ikuspegi sistemikoa behar da, batik bat prezio eta merkatuen analisisan oinarritzen den ekonomia paradigma nagusia gainditzeko gai dena. Horrela baino ezingo dugu ulertu egungo ekonomia krisiaren jatorria, aurreko krisiak ez bezala, krisi sistemikoa dela eta, bereziki, jatorri fisikoa duela: natura baliabide gutxi dago eta ingurumen narriadura gero eta handiagoa da. Berehala egin behar dugu naturarekin harmonikoa den ekonomiara, gaur egun dauden ingurumen arazo larriak aintzat hartuta: erregai fosilen garaiaren amaiera, materialen, lurraren eta uraren eskasia, klima aldaketa, biodibertsitatearen galera etab. Utopikoa ez da pentsatzea trantsizio hori posible dela, baizik eta sistema ekonomikoak orain arte egin bezala funtzionatzeko jarraitu ahal izatea, sistema naturala alde batera utzita.

Ikastaro honen helburua ekonomia ekologikoaren hastapenak eskaintzea da, diziplinak gainditzeko dituen azterlan eremua, gaur egungo arazo konplexuei heltzeko aukera ematen duena, diziplinen arteko elkarrizketaren bidez. Horrela, analisi ekonomikoaren esparru konbentzionala beste ezagutza eremu batzuen ezagutzaz aberasten da, besteak beste, biologiaren, fisikaren, kimikaren, geologiaren, soziologiaren eta beste hainbaten bidez. Gainera, ikastaroak lanbide jardunaldi bat ere izango du; bertan, lan irteerak aurkitu ahalko dira, ekonomia ekologikoaren eremuan.

Lekua eta egunak:

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gradu Aretoa. Lehendakari Agirre etorbidea, 83 - 48015 Bilbo.

Egunak: 2017ko urriaren 25etik 27ra.

Orduetgia: 09:30etik 14:00etara.

Iraupena: 15 ordu (3 egun)

Kredituen aitorpena eta ziurtagiriak

Ikastaro hau doakoa da eta edonor bertaratu daiteke. Parte hartzeko, mezu elektronikoa bidali behar da hona: david.hoyos@ehu.eus

Kredituen aitorpena: 1 kreditu.

Kredituak aitortzeko sistema partziala izango da; horrela, jardunaldietara bertaratzen direnei 0,5 kreditu aitortuko zaie eta, bertaratzeaz gainera, txosten idatzia aurkezten dutenei (12 ordu), 1 kreditu aitortuko zaie. Bertaratzen diren pertsona guztiek jasoko dute jardunaldian parte hartu dutela ziurtatzen duen agiria, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren eskutik.

PROGRAMA:

Urriaren 25a | Ekonomia ekologikoaren printzipioak

09:30-10:50 *Ekonomia ekologikoaren hastapenak: ingurumena eta garapena* (David Hoyos, UPV/EHU).

10:50-11:10 *Atsedaldia - kafea*

11:10-12:30 *Ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa* (Miren Onaindia eta Nekane Castillo, Unesco Katedra UPV/EHU).

12:40-14:00 *Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa* (Gorka Bueno, UPV/EHU).

Urriaren 26a | Ekonomia ekologikoa: teoriatik praktikara

09:30-10:50 *Klima aldaketaren erronka nagusiak. Ikuspegi bat egokitzenetik* (Elisa Sainz de Murieta, BC3 eta LSE).

10:50-11:10 *Atsedaldia - kafea*

11:10-12:30 *Ekonomia eta zor ekologikoa* (Eneko Garmendia, UPV/EHU).

12:40-14:00 *Burujabetza energetikoa: deszentralizazioa eta autokudeaketa* (Álvaro Campos UPV/EHU).

15:30-18:00 *Trantsizio energetikoko egoeren simulazio parte hartzailearen bidezko jolasa, MEDEAS-World ereduaren bitartez* (Dinamizazioa: Iñigo Capellán-Pérez, Valladolideko Unibertsitatea).

Urriaren 27a | Ekonomia iraunkorrerako politika publikoak

09:30 *Aurkezpena. Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa*

10:00-11:00 *Ekonomia iraunkorrerako trantsizioa* (Roberto Bermejo, UPV/EHU).

11:00-11:30 *Atsedaldia - kafea*

11:30-14:00 Mahai ingurua:

Ignacio Quintana (IHOBE, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kudeaketaren Sozietate Publikoa). *Materialen ekonomia zirkularra.*

Javier Marqués (EEE, Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundea). *Eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu energetikorantz.*

Germán Monge (IDOM, S.A.). *Ekonomia berdearen garapena.*

Ikastaroko arduradunak:

David Hoyos (Ekonomia Aplikatua III, UPV/EHU) eta Eneko Garmendia (Ekonomia Aplikatua I, UPV/EHU)

Ikastaroa EKOPOL (Ekonomia Ekologiko eta Ekonomia Politikorako Ikerketa Taldea) ikerketa taldeak eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua III sailek antolatu dute, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren, Garapen Jasangarriaren eta Ingurumen Hezkuntzaren inguruko UNESCO Katedraren eta HEGOAREN (Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua) parte hartzearekin.